

# KIROLA

## SAR HITZA

Kirola historian zehar era batean edo bestean egin bada ere, esan daiteke azkeneko mendean izan duela benetako garapena. Izan ere, hasiera batean gutxi batzuen aisialdirako bitartekoa izatetik, or-har jende guztiaren eskura dagoen bitartekoa izatera igaro da. Halaber, gehiengoarentzat aisialdirako ekintza izanik, badira gutxi batzuk, kirola lanbidea dutenak eta profesional moduan bizi direnak.

Olinpiar Jokoek kirolari izugarritzko bultzada eman zioten; ez bakarrik, kirol batzuen garapenari edo kirolari batzuen errekonozimenduari begira, ikuskizunerako jarduerari begira, esan daiteke, egun Olinpiar Jokoak munduan egiten diren ikuskizun sozial, politiko, kultural, ekonomikoak direla. Kirol ikuskizunetara joatea edo horien ikusle izatea gizartean dagoen aisialdiko jarduerarik nagusienetakoa da.

Kirolak hainbat alorrekin du zerikusia, izan ere, kirolaren eragina esparru guztietara zabaldu egin da: hezkuntza, politika, ekonomia, kultura, osasuna,... Kirolak adin guztietako jendearengana heltzen da, sarri, gure arteko harremanetarako tresna delarik.

Euskal Herrian berezkoak diren kirol asko ditugu. Urteetan, gure kulturaren sustraituak ziren hainbat lanbideetatik eratorritako herri-kirol ugari ditugu: harri-jasotzea, sega, aizkora, esku-pilota, harri-zulatzea, soka-tira, zesta, trinketea,... Kirol guzti hauek gure kulturaren oinarrietariko bat osatzen dute. Kirol horietatik gazte gutxi bizi den arren, askok jarraitzaile kopuru sendoa izatea lortu dute.

Herri-kirolekin batera, Euskal Herriak bere egin ditu munduko hainbat tokietatik eratorritako kirolak. Horien artean masa kirolak daude, hainbat jarraitzaile eta kirolari batzen dituztenak, baina hauetaz gain badira hainbeste jarraitzaile ez dituzten kirolekin parte hartzen duten gazteak. Honekin batera, badira hainbat kirolekin mundu mailako elitea osatzen dutenen artean hainbat euskaldun.

Munduan nagusi den eredu globalizatuak eragin handia izaten ari du kirolean eta Euskal Herrian eragin horiek oso nabariak dira.

### Kirola egiten duten gazteen kopurua (EAE)

	Osozara	Sexua		Adin taldeak		
		Gizonezk	Emakum	15-19	20-24	25-29
(Ia) egunero	21	30	12	29	19	17
Asteburuetan	8	10	6	7	9	7
Noizean behin asteburuetan	10	10	11	7	12	11
Noizean behin astegunetan	27	27	28	31	28	24

		Sexua		Adin taldeak		
Inoiz edo ia inoiz ez	33	23	43	26	32	41
De/Ee	0	0	0	0	0	0

Iturria: Euskadiko gazteak 2004, Eusko Jaurlaritzza

## KIROLA EUSKAL HERRIAN

Kirola milaka jarraitzaile biltzen dituen heinean beti izan da estatu ezberdinentzako lehentasunetariko bat. Euskal kirolariak Euskal Herria maila ofizialean ordezkatzeko aukera oso gutxitan izan dute. Kontrara, askotan Hego eta Ipar Euskal herriko kirolariak elkarren aurka jokatu dute kasu batzutan Espainia eta beste batzutan Frantzia ordezkatzuz.

Dena den, gaur egun badira euskal selekzioa duten kirolak. Baina babes politiko eta sozial nahikorik gabe, oso zaila da kirol hauetan egoera hori mantentzea, are zailagoa nazioarte mailan erabateko onarpenik ez dagoenean edo Espainia edo Frantziako kirol federazioen menpe daudenean.

Guzti honi gure herrian administratiboki dagoen zatiketa gehitu behar zaio. Horrela, estatu mailako federazioei, administrazio bakoitzean dauden federazioak gehitu behar zaizkie. Edozein kiroletan jarduteko kirol federazioek zabalduko lizentzia beharrezkoa da. Euskal Herriko federazio ezberdinen artean, badira beraien artean harreman sendoa dituzten batzuk .

Euskal Herriko herrialdeen arteko euskal txapelketak antolatzeko eta bertan parte hartzeko zailtasun ugari dago. Kirolak beraien estatuko txapelketetan egituratuta daude eta hortik behera nahiko zaila da bestelako txapelketarik antolatzea.

Azken urteetan egoera aldatzeko saiakera ugari egin diren arren (surf, sanbo, mendia,...), gaur egun Euskal Herri mailako hiru federazio daude eta euskal herritar moduan aritzeko nazioarte mailan legez onartua dagoen kirol bakarra wushu-a da.

Bestelakoan, euskal selekzioa, maila ez-ofizialean jokatu duenean babes sozial handia jaso duen arren, gehienetan euskal selekzio horietan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kirolarien selekzio bihurtzen dira. Dena den, hainbat kiroletan Euskal Herriko herrialde guztietako kirolariak parte hartu izan dute.

## KIROLA ETA GLOBALIZAZIO KONTSUMISTA

Kirola ikuskizun handietarako tresna izanik, interes ekonomiko handien jomuga ere bada. Izan ere, gaur egun kirol ikuskizunetan, kirol taldeetan, inguruan biltzen diren hainbat sektoreen inguruan dirutza handia mugitzen da. Hala ere, kirol batean eta bestearen artean ezberdintasun handiak daude eta gure herrian masa kirolak direnak dira diru gehien mugitzen dituztenak (futbola, saski-baloia, errugbia, eskubaloia).

Kirolaren inguruan interes publizitario handiak daude, kirola eta kirolari famatuak hainbat produkturen salmentarako ezinbestekoak dira. Kirolak asko saltzen du eta horretarako lehen mailako kirolarien irudiaz baliatzen dira enpresa ezberdinak. Era berean, kirol materiala saltzen duten enpresa asko dago eta milaka eurotako irabaziak izan ohi dituzte. Kirola ikuskizuna eta moda da, honen inguruan arropak, materiala, osagarriak daude, baina batez ere, negozio biribila da. Irabazle nagusiak mundu mailan oso ezagunak diren kirol multinazional handiak dira, herrialde txiroetan milaka haur baldintza guztiz penagarrietan mantentzen dituzten berdinak.

Azken urteotan, berriz, kirola kontsumorako bitarteko nagusienetakoa bihurtu da. Aisialdiko jarduera nagusienetakoa izanik, nagusi diren gorputz ereduen bila milaka gazte bildu dira kirolaren bidez super gorputzak lortzeko lasterketara. Honek hainbat gazteren artean kirolarekiko grina gehiegi, sarri obsesioa bihurtua, ekarri du. Honekin batera, kirol ikuskizunen eskaintza handitu egin da, masa-kiroletan batez ere, horien bidez jendeak barnean dituen gaitzak ateratzeko bitarteko bihurtu direlarik. Honekin batera, hainbat kirolen inguruan biolentzia jarrerak areagotu egin dira.

#### Gehien praktikatutako kirolak, 1991, 1998, 2003 (Nafarroan)

KIROLAK	1991 (%)	1998 (%)	2003 (%)
Futbola, futbitoa, areto futbola	38,4	35,8	31,0
Gimnasia, aerobic, muskulazioa...	16,2	21,6	28,6
Footing, paseatu	14,5	17,2	15,3
Igeriketa	5,7	13,3	12,7
Txirrindularitza, zikloturismo	7,8	11,3	7,3
Pilota	14,1	10,8	6,6
Eskia	9,9	6,3	6,1
Mendizaletasuna, alpinismoa, eskalada	7,4	10,8	5,3
OSOTARA	100,0 (Z=758)	100,0 (Z=893)	100,0 (Z=940)

Iturria: Nafarroako gazteria 2003, Bartolomé de Carranza fundazioa

### KIROLA ETA KULTURA

Mendeetan zehar Euskal Herrian gure kulturaren eta gure kirolen arteko lotura eman da. Kulturaren oinarrietariko bat izanik, horietariko kirol asko eta asko tradizioari loturik jarraitzen dute baina bizi garen garaietara egokituz.

Hala ere, herri-kirolak ez dira oso baloratuak gure artean. Praktikatzen dutenen eta jarraitzaile kopuruaren arabera, beste kirol askoren azpitik daude. Halaber, beste kirol batzuei komunikabideetan eta iragarkietan eskaintzen zaien tartearekin alderatuz, bigarren maila batean kokatzen dira. Izan ere, komunikabide nagusienek interes ekonomikoen menpe daude eta horrela dirutza handia mugiarazten dituzten kiroletan zentratzen dira, futbolekin (Hego eta Ipar Euskal Herrian) eta errugbian (Ipar Euskal Herrian) batez ere. Honen ondorioz, herri kiroletan dabilzatenak euren aldetik bilatu behar dituzte laguntza eta babesa, hirietan herrietan baino zailtasun handiagoak

daudelarik.

Kirol ikuskizunen jarraipenari begira, honako datuak agertzen dira: Nafarroan, telebistaz kirol ikuskizunak jarraitzen dutenen gazteen kopurua %63'1 da, prentsa idatziaz %47'2, irrati %29'5 eta kirol areto, estadio edo zelaietan bertan %25'1. Kirol jarraitzaileen kopuruetan gizonezkoek ia bikoizten dute emakumeen jarraitzaile kopurua. Bestalde, kirol ikuskizunen jarraipena kirol estadio, areto zein zelaietan adinarekin zerikusia handia du. Izan ere, 15-19 adin-tartean %34'1 da kirol ikuskizunen jarraitzaile; 20-24 bitartean %23'4 eta azkenik, 25-29 bitartean %20'4ra jaisten da.

### Kirola ikustera joaten direnen kopurua (EAE)

	Osotara	Sexua		Adin taldeak		
		Gizonezk	Emakum	15-19	20-24	25-29
(Ia) egunero	2	2	2	1	2	2
Asteburuetan	11	17	5	12	13	9
Noizean behin asteburuetan	25	35	16	28	26	23
Noizean behin astegunetan	3	4	2	5	3	3
Inoiz edo ia inoiz ez	58	41	75	54	55	64
De/Ee	0	0	0	0	0	0

Iturria: Euskadiko gazteak 2004, Eusko Jaurlaritzza

Bestalde, herri-kirolei maiz ematen zaien folklore izaera horrek min handia egiten dio bertatik bizi eta garatu nahi duten kirol profesionaleri. Kulturaren zati bat izanik, urteetan mantendu eta garatu diren herri-kirolen mantentzea kulturaren indartzearekin bat datoz.

Bizi dugun globalizazioaren bidez, esparru ezberdinetatik hainbat balore hedatzen dira. Kirolaren bidez, gazteengan eragin handia duten hainbat balore txiki-txikitatik zabaltzen dira. Konpetitibitatea edo oldarkortasuna bezalako baloreak hainbat kirolen bidez zabaltzen dira.

### KIROLA ETA OSASUNA

Azkeneko urteotan gazteok osasunari garrantzia handiagoa ematen diogula dirudi. Hala ere, eta aurrekoa positiboa den arren, sarri osasuntsu egotea gorputz eredu zehatz bat izatearekin nahasten da. Ondorioz gazte askorengan neurrigabeko garrantzia ematen zaio gorputz eredu zehatz bat izateari eta hori dela eta gaixotasun fisiko eta psikikoek hedapen handia izaten ari dira. Aipagarriak dira anorexia edo bulimia bezalako gaitzak, hasiera batean emakumeen artean ematen zena, baina orain mutil gazte askok pairatzen dutena.

Era berean, osasuna obsesioa bihurtzen denean, eguneroko bizitzan eragiten du dietak aldatuz edo gimnasioetan behar baino ordu gehiago sartuz. Bigorexia gazteengan oso hedatua dagoen gaixotasuna da.

Hala ere, kirola egitea osasungarria da. Gorputzarentzat ona da, baina sarri ez dugu behar bezalako hezkuntza jasotzen. Hartara, askotan emaitzak arinegi ikusi nahi ditugu eta badira gazteak hori lortzeko substantzia zehatz batzuk hartzen dituztela, osasunean hauek eragiten dituzten kalteak kontutan hartu gabe. Beste maila batean, kirol profesionalean nahiko hedatua dago dopina, baina amateurrek diren kategorietan ere, sarri beste batzuen eraginez, gazteak dopatu egiten dira.

### Kirola ez egiteko arrazoiak (Nafarroan)

	Osotara (%)	Adin taldeak		
		15-19 urte (%)	20-24 urte (%)	25-29 urte (%)
Ez dutelako denborarik	30,1	24,7	31,9	31,6
Ez dutelako egin nahi	25,3	31,3	23,8	23,2
Utzikeriagatik, ilusio faltagatik	24,4	19,3	26,6	25,2
Norekin egin ez dutelako	3,9	5,3	3,6	3,2
Non egin ez dutelako (instalazioak)	2,3	4,0	2,0	1,6
Ezintasun fisiko edo osasun ezintasunengatik	2,6	6,7	1,6	1,2
Arazo edo ezintasun ekonomikoengatik	2,0	1,3	2,0	2,4
Bestelako arrazoiengatik	8,2	5,3	7,3	10,8
Ed/Ee	1,2	2,0	1,2	0,8
OSOTARA (%)	100,0	100	100,0	100,0
(Zenbakitan)	(648)	(150)	(248)	(250)

Iturria: Nafarroako gazteria 2003, Bartolomé de Carranza fundazioa

## KIROLA ETA HEZKUNTZA

Arestian aipatu bezala, egun kirol gehienetan konpetitibitatea da nagusi. Eredu honen zabalpena bizi garen gizartean nagusitzen diren baloreen eraginez ematen da. Izan ere, hezkuntza ereduaren indibidualismoa eta alor guztietan hoberena izatearen kontzientzia zabaltzen da.

Kirolak hezkuntza prozesuan beharko lukeen baino toki gutxiago du. Izan ere, kirola ezinbestekoa da edozein ume eta gazteren garapen integrala bermatzeko. Eskoletan hainbat dira kirolen bat edo beste praktikatzeko dituztenak, baina gehienetan masa-kirolen aldeko apustua egiten da, eta askotan baliabide material eta humanoen gabezia ematen da.

Prozesu guzti honetan garrantzia handia dute ikastetxeetan entrenatzaile eta begirale adituak izatea. Hala ere, askok formazioa eta hezkuntza gabezia handiak dituzte, baliabide eskasak dituztelako.

Bestalde, kirolaren bidez baztertzailak diren egoerak sortzen dira. Hezkidetzaren kirolean garatu behar den balorea behar du izan. Oraindik ere, emakumeek bazterketa handia jasotzen dute bai errekonozimendu aldetik eta baita kirol batzuk praktikatzeko garaian ere.

Euskararen zabalpenerako, kirol ekintzak oso garrantzitsuak izan dira. Kirolak hainbat haur eskolaz kanpo euskaraz bizitzen jarraitzea ahalbidetzen baitu.

## **KIROLA ETA PAREKIDETASUNA**

Gaur egun gizon-emakumeek, neska-mutilek kirola egiten duten arren, emakumeentzako oraindik hainbat mugapen dituen eremua da. Emakumeak diren kirolari ospetsuak oso gutxi ezagutzen ditugu. Honek ez du esan nahi ez daudenik, bai prentsan, bai irratan, bai telebistan, bai iragarkietan gizonezkoak soilik agertzen direlako eta errekonozimendu sozialaren aldetik emakumeak behar bezala baloratuak ez direlako baizik. Goi mailako emakume batzuek ospea lortu duten arren, status horretara heltzeko lan handia egin dute, gizonei baino gehiago eskatzen baitzaie.

Profesional mailan, emakumeek oso kirol gutxitan lortzen dituzte irabazi ekonomikoak, eta beti ere, gizonezkoak baino askoz gutxiago. Jarraitzaileen aldetik, ikusleen aldetik edo enpresen zein instituzioen babesen aldetik alderaketa handia da ere.

Egoera honen zergatia bizi garen gizartean kokatu behar badugu ere, kirolaren bidez nagusitzen eta indartzen diren balore askok ez dute batere laguntzen. Izan ere, kirolaren bidez lehiakortasuna eta oldarkortasuna zabaltzen den bitartean, parte-hartzearen aldeko jarrerak teoriarik ematen diren arren, ondotik garrantzitsuena arerioa menderatzea delako.